Otxoki pas., 100 | Tel. 943483920 | suhiltzaileak@donostia.eus - www.donostia.eus/suhiltzaileak
20015 Donostia / San Sebastián

DONOSTIAKO PSISZ-REN IBILGAILU AUTO-ESKAILEREN MANTENTZE-ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

1.- XEDEA

Baldintza-agiri honek Donostiako Udaleko Suhiltzaile Zerbitzuaren auto-eskaileren mantentze prebentibo eta zuzentzailea egiteko zerbitzu-kontratua arautuko duten gutxieneko baldintza eta betekizun teknikoak ezartzen ditu. Helburua da ibilgailuek ahalik eta fidagarritasun, segurtasun eta eraginkortasun handienarekin funtzionatzea. Hori guztia jasotze-gainestrukturari eta egonkortze-sistemari soilik dagokie.
Kontratuak aurreikusten du zerbitzuko bi auto-eskaileren mantentze prebentiboa eta zuzentzailea egitea 2022ko eta 2023ko ekitaldietan. Urtean azterketa bat egingo da ibilgailu bakoitzeko, kontratazio-aldian.

IBILGAILUAK:

Magirus DLK-23-12 CS auto-eskailera, 4983-FKM matrikula. 2022. eta 2023. urteetan, urteko azterketa.

Magirus M 42 L-AS auto-eskailera, 1904-KPT matrikula. 2022an urteko azterketa eta 2023an bost urtean behingo azterketa.

2.- KONTRATUAREN BALDINTZA TEKNIKOAK

2.1 Mantentze prebentiboa

Esleipendun enpresak, kontratazio-aldian, ibilgailu bakoitzeko azterketa bat egingo du, urtean behin. Bertan, baldintza agiri hontako 2.1.1. puntuko ondoko zerrendan adierazten diren esku-hartze guztiak egingo dira. Azterketako esku-hartzeak altuerako ekipoei eta haien mekanismoei dagozkie, eta Donostiako PSISZren instalazioetan egingo dira.

Azterketak direla-eta ibilgailuak erabiltzeko moduan ez dauden aldiak minimizatzeko, PSISZk zehazten duen hurrenkeran egingo dira azterketak, eta unitate bakoitzean esku hartuko da, amaitu arte.
Salbuespenez, ekipo edo instalazio bereziak erabili behar direla-eta ibilgailuren bat adjudikaziodunaren tailerretara eraman behar bada, adjudikazioduna arduratuko da ibilgailuaz, bai eta hura jatorrizko parkera itzultzeaz ere. Ibilgailuak garabi- edo gondola-ibilgailuetan eramango dira.

Adjudikaziodunak, ibilgailu baten ardura hartzean, gordailu-ziurtagiri bat egingo du, eta hura Donostiako PSISZri emango dio. Ziurtagiri horretan jasoko da ibilgailuaren zaintza bermatzen duela eta bere gain hartzen duela ibilgailuak izan ditzakeen kalteen gaineko erantzukizuna, ibilgailua kentzen denetik entregatzen den arte, mantentze-lanak egin ondoren.
Kontratuaren xede diren lanak egiteko behar diren ordezko piezak eta osagarriak berriak, originalak eta berriki egindakoak izango dira beti; iraungitze-data dutenak beren bizitza baliagarriaren % 85 baino gehiago dutela ekarri beharko dira, eta eskaintzak aurkezteko azken egunean aplikatzekoa den araudiaren arabera fabrikatuak izan beharko dute. Jatorrizko ordezko piezak katalogatu gabe badaude eta dagoeneko merkaturatzen ez badira, beste fabrikatzaile baten pieza berri bateragarriak erabili ahal izango dira, Logistika Unitateko/Tailer-Biltegi Ataleko arduradunaren aldez aurreko baimenarekin betiere. Era berean, lanetan erabiltzen diren olioak eta bestelako likidoak fabrikatzaileak agindutakoak izango dira.

Adjudikaziodunak azterketa-fitxa bat egingo du, ibilgailu bakoitzeko. Fitxa horretan, ibilgailuan egindako esku-hartzeak jasoko dira, eta data, tokia eta lana egin duen langilearen izena adieraziko dira.

Kontratistaren betebeharra da kontratuaren xede diren jarduerek sortzen dituzten hondakinak tratatzeko eta kudeatzeko araudia ezagutzea eta betetzea. Kontratistak bere gain hartu beharko ditu, administrazioari inolako kosturik eragin gabe, araudi horrek hondakinen ekoizleei, edukitzaileei eta kudeatzaileei eragiten dizkien betebehar guztiak, dagokionaren arabera. Era berean, beste erakunde publiko edo pribatu batzuek Donostiako Udalari gai honen inguruan egiten dizkioten errekerimenduei erantzuteko agiri mota guztiak egin eta entregatu beharko ditu.

10740n XVII

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Idiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza

Ibilgailu bat aztertzean anomaliak edo matxurak hautematen badira, adjudikaziodunak intzidentzia horiei buruzko txosten zehatza egingo du. Txosten hori PSISZren arduradunari igorriko zaio. Nolanahi ere, adjudikaziodunak txosten bat egingo du, ibilgailuei egindako esku-hartzeak eta aztertutako ibilgailu guztien egoera orokorra zehaztuz.

Mantentze-lan prebentiboetan hautemandako matxurak konpontzea sartuta dago espediente honen xedean, mantentze zuzentzailearen atalean.

Azterketak abenduan egingo dira.

2.1,1 Mantentze prebentiboko esku-hartzeak:

Mantentze prebentibo bakoitzean fabrikatzaileak agindutako esku-hartze guztiak egingo dira.

Nolanahi ere, urteko mantentze-lanetan, fabrikatzaileak agindutakoez gain, honako esku-hartze hauek ere egingo dira:

1. TXASISA AZTERTZEA:
Indar-hartune elektriko eta pneumatikoaren instalazioa, kabinako argi-adierazlea, eroapen-blokeoa, indar-hartune konektatuarekin eta errelearekin duen aldizkakotasuna aztertzea.

2. KABINAKO ELEMENTU ELEKTRIKOAK AZTERTZEA:
Birakarien, kargagailuen, ordu-kontagailuaren, argiztapen gehigarriaren, displayaren, larrialdiko argien eta fusibleen funtzionamendua aztertzea.

3. INSTALAZIO ELEKTRIKO OSOA AZTERTZEA:
Kableak, konektoreak eta tentsioa aztertzea.
Azpiegiturako erreleak eta fusibleak, postu nagusia eta salbamendu-saskia aztertzea.
Azpiestruktura-ordenagailuak, postu nagusia eta salbamendu-saskia begiz egiaztatzea, eskura dituzten ereduetan. LEDen funtzioak egiaztatzea.
Ardatz nagusiko eraztuna begiz ikuskatzea.
Sorgailuaren funtzionamendua egiaztatzea.
230/400 V-ko instalazioa egiaztatzea.
Larrialdietako ponpa egiaztatzea.

4. AZPIESTRUKTURA AZTERTZEA:
Euskarrietan, honako hauek egiaztatzea: ainguraketa, elementu gidariak, zarata, malgutasuna, korrosioa, koipeztatze-puntuak eta aldizkakotasunak.
Balezta-blokeoetan, balezten funtzioa, egoera, finkapenak, kableak, poleak eta jasotzeko malgukia egiaztatzea.
Zilindro hidraulikoak egiaztatzea.
Ur-andela egiaztatzea.
Ponpa hidraulikoa egiaztatzea.
Instalazio hidrauliko osoa egiaztatzea: hodiak, tenkagailuak, balbulak...
Ardatz nagusiaren instalazio hidraulikoa egiaztatzea.
Segurtasun-funtzioak, larrialdiko botoiak eta esku-balazta egiaztatzea.
Euskarri-sentsoreen, presio hidraulikoaren eta joystickaren seinaleak egiaztatzea.
Orga birakariaren nibelazioa egiaztatzea.

5. PODIUMA AZTERTZEA:
Konpartimentu, pertsiana, euskarri, argiztapen eta sarbide-eskaileren egoera orokorra egiaztatzea.

6. ORGA BIRAKARIA AZTERTZEA:
Ainguraketak egiaztatzea: orgatik finkatze-eraztunera artekoa, biraketa-motorrarena, jasotze-botilena, dibidietarena, poleetatik eta kableetatik dibidietara artekoa, eskalatik orgara artekoa eta jasotze-ardatzetik orgara artekoa.
Instalazio hidrauliko osoa egiaztatzea: banagailu nagusia, tenkagailuak, balbulak, zilindro hidraulikoak eta mugimendu-ardatzak.
Dibidietako balazta-diskoen olio- eta higadura-maila egiaztatzea.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

Biraketa-motorraren olio maila egiaztatzea.
Mugimendu guztien funtzionamendua egiaztatzea, aukera mugimenduena ere barne dela: joystickak, botoiak, gizon hilaren pedala...
Segurtasun-funtzioak egiaztatzea: ebaketa-mugak, larrialdiko geldialdia, gainkarga, abiaduren murrizketa...
Sentsoreak eta etengailuak egiaztatzea: joysticka, postu nagusia saskiarekin komunikatzeko botoiak, nibelazio-sentsoreak eta eraztuna
Display-a, eremu graduatua eta burbuila maila egiaztatzea.
Orga birakariaren argi guztiak egiaztatzea.

7. LARRIALDIETAKO ESKU-HARTZEAK AZTERTZEA:
Motorraren biraketen, mugimenduen, abiadura mugatzeko balbularen eta alarmaren funtzionamendua egiaztatzea.

8. TARTE GUZTIAK AZTERTZEA:
Poleak, kableak, arrabolak, lerradura-plakak, teleaginte-kableak, teleaginte-poleen ainguraketa-puntuak eta altzairuzko kableak,
maila eta jantzi ez-labaingarriak, oxidazioak eta koipeztatze-puntuak, luzatze-kableak erregulatzea, bilketa eta teleagintea egiaztatzea eta errodadura doitzea.
GL modeloetan, tarte artikulatuaren, zilindroen, balbulen eta tenkagailu hidraulikoen eta sentsoreen egoera egiaztatzea.
GLT modeloetan, zutabe lehor eta teleskopikoaren errotula egiaztatzea.

9. SALBAMENDU-SASKIA AZTERTZEA:
Saskiaren ainguraketa-puntuak, teleagintea, konektore elektrikoak, elektrobalbulak, hidraulikoaren olio maila, instalazio hidraulikoaren estankotasuna, teleagintearen (ordenagailua) funtzionamenduaren egiaztapen elektrikoa, megafonia eta haren koipeztatze orokorra aztertzea.

Talka-segurtasuneko etengailuak eta horien funtzionamendua aztertzea.
Ibilgailuak saskian dituen aukera guztiak egiaztatzea: ultrasoinu-sentsoreak, bideokamera, gelditze-sentsorea...
Saskiko larrialdi-sistema (eskuzko balbula) egiaztatzea.

10. OLIOAK ORDEZTEA ETA KOIPEZTATZEA (Bost urtean behingo azterketa):
Hidraulikoko olioak, engranaje angeluarra, biraketa-engranajea eta dibidieta ordezkatzea.
Tarteen errodadura-puntu guztiak, koroa birakaria, ardatz nagusia, kableen ardatzak eta poleak, kateen engranaje-kaxari eragiteko palankak eta dibidieta modu orokorrean koipeztatzea.

11. BALEZTAK BLOKEATZEKO KABLEAK ORDEZTEA (Bost urtean behingo azterketa):
Baleztak blokeatzeko kableak ordeztea (5 urtean behin)

12. OSAGARRIAK AZTERTZEA:
KTLa, ur-monitorea eta abar egiaztatzea, halakorik izanez gero.

13. GAINKARGA-PROBAK:
Gainkarga-probak egitea eta alarmak jotzen duela eta karga-muga adierazten duela egiaztatzea.

14. AZKEN PROBAK:
Eskalako mugimendu guztien azken proba egitea, funtzionamendu-egoera ezin hobean eta zerbitzurako prest dagoela egiaztatzeko.

2.2 Mantentze zuzentzailea

Enpresa adjudikaziodunak edo adjudikaziodunek era guztietako konponketak (altuerako ekipoetan) egin beharko dituzte esleitutako ibilgailuetan.
Konponketen aurrekontua adjudikaziodunak egingo du, tailerrean esku hartu aurretik, baina Donostiako PSISZren adostasuna beharko da horretarako.
Lehenik eta behin, urteko azterketetan ikusitako gabeziekin zerikusia duten lanen aurrekontua egingo da.
Aurrekontua urteko azterketa egin baino hamabost egun lehenago egingo da, gutxienez, eta konponketak hurrengo astean egingo dira, betiere Donostiako PSISZk aurrekontuak ontzat eman ondoren.

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamenduaren Zerbitzua
Servicio de Prevención, Extinción de Incendios y Salvamentos

Otxoki pas., 100 | Tel. 943483920 | suhiltzaileak@donostia.eus - www.donostia.eus/suhiltzaileak
20015 Donostia / San Sebastián

Gertatzen diren matxurak enpresa adjudikaziodunari jakinaraziko zaizkio, zehaztutako bitartekoen bidez (telefonoa, posta elektronikoa eta abar).
Matxurak ibilgailuaren erabilgarritasunari eragiten badio, lehenbailehen konpondu beharko da hura, eta konponketa-tailerrak 48 orduan erantzun beharko du. Matxurak edo akatsak ez badu eragozten ekipamendua normal erabiltzea, konponketarako data bat jarriko da, Donostiako PSISZk adierazitako pertsonarekin adostuta.
Konponketaren bat egiteko suhiltzaileenak ez diren beste instalazio batzuetara eraman behar bada ibilgailua, adjudikaziodunak ordaindu beharko ditu gastu eta baliabide horiek, bere ardurapean. Lekualdaketa garabi edo gondola bidez egingo da.
Konponketetan erabilitako eskulan-orduak fabrikatzaileek ordezko piezak jartzeko ezarria duten denborara egokituko dira.

Erabiltzen diren piezen eta ordezko piezen prezioa Iveco-Magirus Ulm-en tarifa ofizialean ezarritakoak izango dira. Jatorrizko ordezkorik ez badago, beste fabrikatzaile batzuen generikoak onartuko dira. Prezioak egiaztatzeko, albaranen, fakturen edo bestelako egiaztagirien kopiak aurkeztu beharko dira.

Eskulanaren, joan-etorrien eta dieten prezioak kontratuan adjudikatutako prezioen araberakoak izango dira.
Aurrekontua konponketaren aurretik egingo da, eta konponketa egiteko oniritzia beharko da.

3. Lan-taldea:

Enpresa esleipendunak zerbitzua, gutxienez, honako lan-taldearekin eman beharko du:

- Magirusek emandako aurtengo prestakuntza egin duen mekanikari bat, autoeskaileren mantentze-lanak egiteko hori egiaztatzen duena.

Era berean, kontratuaren arduradun bat izendatu beharko du, eta bera izango da Donostia SPEISekiko interklokutorea.

Donostian, 2022ko abuztuaren 30a

PSISZ zuzendaria

Elisabeth Arrillaga Arrizabalaga

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Lege Zuzendaritza - Dirección Jurídica
Tokiko Gobernu Batzarrak onartua.
Aprobado por la Junta de Gobierno Local
2022 IRA. SET. 27